

/2021 FORU AGINDUA, (e)koa, Eskubide Sozialetako kontseilariak emana, zeinaren bidez garatzen baita adinekoendako erabilera libreko prestazio ekonomikoa, hain zuzen ere Nafarroako Foru Komunitateko egoitzetan, mendekotasun-egoeran dauden eta desgaitasun edo nahasmendu mental larria dutenendakoa.

Nafarroako Foru Komunitateak erabateko eskumena du gizarte laguntzaren arloan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.17 artikuluan ezarri bezala.

Gizarte zerbitzu orokorren zorroak, Gizarte Zerbitzuetako abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea garatuz ekainaren 17an eman zen 69/2008 Foru Dekretuak onetsiak, prestazio bermatuz hartzen du adinekoendako erabilera libreko prestazio ekonomikoa. Adineko horiek egoitzetan bizi dira, ez dute baliabide ekonomikorik, mendekotasun-egoeran daude eta desgaitasun edo nahasmendu mental larria dute.

Edozein modalitatetako egoitza batean bizi diren pertsonen erabilera libreko gastuak berdintzeko xedea du prestazio honek, ez berek ez familiek baliabiderik ez dutenean. Horien artean daude norberaren higienarako produktuak, arropa, garraioa, aisialdia eta abar.

Indarreko legeetan ezarritako beste edozein motatako baliabide edo prestazio ekonomikoen osagarria eta subsidiarioa da, eta horiek osotara erabili beharko dira eskaera egin aurretik.

Arau hau kontsultarako jarri da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluan, Desgaitasuna duten Pertsonen Nafarroako Kontseiluan eta Nafarroako Adinekoen Kontseiluan, kontsulta-organo horiek erregulatzen dituen araudian ezarritakoaren arabera.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

AGINTZEN DUT:

I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Xedea eta aplikazio eremua.*

Foru agindu honen xedea da adinekoendako erabilera libreko prestazio ekonomikoaren araubidea garatzea. Adineko horiek Nafarroako Foru Komunitateko egoitzetan bizi dira, ez dute baliabide ekonomikorik, mendekotasun-egoeran daude eta desgaitasun edo nahasmendu mental larria dute.

2. artikulua. *Laguntzaren onuradunak*

Hurrengo artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten adinekoek, hots, mendekotasun-egoeran bizi direnek eta desgaitasun edo nahasmendu mental

larria dutenek, aldian-aldian erabilera libreko prestazio ekonomiko bat jasoko dute, baldin eta hartan aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte.

3. artikulua. *Dirulaguntzak jasotzeko baldintzak.*

1. Foru agindu honetan ezarritako prestazioak eskuratu ahal izateko, beharrezkoa da baldintza hauek betetzea prestazioa eskatzen den unean eta laguntza jasotzen den aldian:

-Eskaera egin aurreko bi urteetan Nafarroan egiazki eta jarraian bizi izan dela frogatzea, edo Espainiako beste toki batetik etorriz gero, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezartzen dituen irizpideak betetzea (Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa).

-Egoitza batean arreta hartzeko plaza iraunkorra okupatzea, Nafarroako Gobernuan gizarte zerbitzuen eskumena duen departamentuak honelakotzat aitortua.

-18 urte izatea, gutxienez.

-Baliabide ekonomiko propiorik ez izatea, ezta familiaren laguntzarik ere erabilera libreko gastuak berdintzeko. -Aldez aurretik eskatu izana eta prestazioak irauten duen aldi osoan, eskatzaileari legezko prestazioak, pentsioak edo sorospenak jasotzeko eskubidea; baita mantenu eta/edo konpentsazioko pentsioak ezarri eta ordaintzeko zuzenbide-ekintzak baliatzea ere.

4. artikulua. *Baliabide ekonomikoak:*

1. Prestazio hau soilik jaso dezakete 2. artikuluan ezarritako onuradunek, baldin eta haien baliabide ekonomiko propioak (dirusarrerak, kapital higigarria eta kapital higiezina) erabilera libreko gastuak baino baxuagoak badira.
2. Prestazio ekonomikoa emateko, onuradunak legezko prestazio ekonomikoak izateko eskubide guztiak eskatu beharko ditu, prestazioa jasotzen den aldian.

5. artikulua. *Xedea.*

1. Erabilera libreko prestazio ekonomikoa prestazio ekonomiko bat da. Aldian aldikoa da eta izaera osagarria eta subsidiarioa du legeriak ezartzen dituen bestelako baliabide eta prestazio ekonomikoen aldera.
2. Laguntza hauen xedea da egoitzetan bizi diren pertsonen berriazko premiei aurre egitea. Pertsona horien baliabideak ez dira aski beste prestazio edo laguntza batzuen bitartez berdintzeko edo ezin dira bideratu Nafarroako Foru Komunitatean dauden beste baliabide normalizatu batzuen bidez.
3. Laguntza horiek finalistak dira, hau da, zertarako ematen diren, hartarako bakarrik izanen dira.

6. artikulua. Kontzeptua eta zenbatekoa.

1. Erabilera libreko gastuei aurre egiteko prestazio ekonomikoak ondoko gastu-kontzeptu hauek izanen ditu:
 - a) Higiene pertsonaleko produktuak
 - b) Arropa
 - c) Garraioa
 - d) Aisia
 - e) Pertsonak beharrezkotzat duen beste edozein gastu, gastu hori ez badu egoitzak bere gain hartzen.
2. Prestazioa gehienez ere urtean 1.728,74 eurokoa izanen da, eta onuradunak lortutako baliabide ekonomikoak kopuru hori arte osatuko du.

7. artikulua. Prozedura.

1. Prozedura interesdunak oinarrizko gizarte zerbitzuan, osasun etxean, osasun mentaleko zentroan edo bizi den egoitzan eskabidea aurkezten duenean hasiko da. Eskabidea behar bezala sinatuta egonen da, eta agiri hauek ere aurkeztuko dira harekin batera:

- a) Eskatzailearen nortasuna ziurtatzen duen agiriaren zenbakia.
- b) Eskatzailearen Erregistro Zibileko banakako ziurtagiria.
- c) Dibortzio epaia eta/edo hitzarmen arauemailea, dagokionean.
- d) Errolda eta bizikidetasun agiria, Nafarroan bizitzen zenbat urte daramatzen adierazten duena.
- e) Diru-sarrerak justifikatzeko agiriak.
- f) Beste prestazio edo pentsio bat eskatu badu, hura ukatu izanaren egiaztagiria.
- g) Egoitzako txostena aurkeztu behar du, eta hartan:
 - a. Eskatzailea egoitzan noiz sartu zen.
 - b. Laguntza eskaerarako beharrezkotzat jotzen ahal diren beste dokumentu batzuk, aurreko apartatueta jaso ez direnak.
- h) Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera. Pertsona edo erakunde hartzailea eta eskatzailea pertsona bera ez badira, baimen espresa aurkeztu beharko da, orobat.

2. Administrazio jarduleak eskura dituen dokumentuei edo beste edozein administrazio eginikoei dagokienez, dokumentu horiek kontsultatzen edo eskatzen ahalko dira, salbu eta horri aurka egiten bazaio. Horretarako, adierazi beharko da zer unetan eta zer administrazio organoren aurrean aurkeztu ziren dokumentu horiek.

Aurrekoa gorabehera, salbuespenez, aipatutako dokumentuak ezin badira eskuratu, berriz eskatzen ahalko zaio interesdunari horiek aurkezteko.

3. Aurkeztutako agirietan akatsik edo kontraesanik atzemanaz gero, edo eskatutako baldintzak frogatzeko osatu beharra dagoela iritziz gero, eskumena duen unitate administratiboak eskatzaileari eskatuko dio hamabost egun balioduneko epean akatsa zuzen dezala edo eskatutako agiriak aurkez ditzala, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dela.

8. artikulua. *Prozedura ebaztea eta ebazte-epea etetea.*

1. Erabilera libreko prestazio ekonomikoaren eskaerak tramitatu eta ebazteko organo eskuduna adinekoendako zerbitzuen gaian eskumena duen unitatea da (adinek horiek mendekotasun-egoeran daude eta adimen-desgaitasun eta nahasmendu larria dute).

2. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena idatzi eta jakinarazteko gehieneko epea hilabetekoa izanen da, eskaera Nafarroako Gobernuaren erregistro ofizialetako batean sartzen den egunetik zenbatzen hasita. Epe hori igarota, administrazioaren isiltasunez ezetsizat joko da eskaera hori.

Laguntza ematen bada, ebazpenean onuraduna, laguntzaren kontzeptua eta zenbatekoa adieraziko dira. Emandako laguntza eskatutakoa baino gutxiago bada, murrizketa horren arrazoia adieraziko da.

Eskaera ukatzen bada, ukatze horren arrazoiak adieraziko dira.

Ebazpena laguntzaren onuradunari jakinaraziko zaio kasu guztietan.

3. Nolanahi ere, ebazpena eman eta jakinarazteko epea etenik geldituko da interesdunari eskatzen zaionean akatsak zuzentzeko eta beharrezkoak diren agiriak edo juzgatzeko beste elementu batzuk aurkezteko, errekerimendua jakinarazten denetik egiazki zuzendu edo aurkezten diren arte, edo, horrelakorik ezean, ematen den epea bukatu arte.

4. Prozedurari amaiera ematen dion ebazpena aurkaratzen ahalko da, administrazio prozedurari buruzko araudi orokorrean ezarritakoaren arabera.

9. artikulua. *Laguntzaren ordainketa.*

1. Prestazioa hileru ordainduko da, urteko kopurua 12 hilekotan hainbanatuta, onuraduna egoitzan egon eta foru agindu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituen bitartean.

2. Oro har, laguntzaren eskatzaileak jasoko du laguntza. Salbuespenez, onuraduna dagoen egoitzari ordaintzen ahalko zaio. Ez da gastua justifikatu beharko.

3. Prestazio hau emanen da eskatu eta biharamunetik aurrerako ondorioekin.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Indargabetutako arauak.*

Indarrrik gabe gelditzen dira foru agindu honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko arauak.

Azken xedapen bakarra. *Indarra hartzea.*

Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.